

# Nazionalismoaren edukin etikoa atzemangarria da?

(Euskal Herrian euskaldunak minoria gara, baina ez nolana hikoia....)

*Emilio Lopez Adan*  
*Idazlea, Baiona*

Artikuluak nazionalismoa, demokrazia eta askatasunaren arteko harremanak ikertzen ditu. Ildo beretik, minoritateen arazoa ere aipatzen du. Naziotasuna ezin ukatuzko fenomeno denez, bere edukina humanismo unibertsalarekin eta demokrazia zuzenarekin dituen harremanen arabera epaitu behar da. Ikuspegi orokorraren ondotik, orain Euskal Herriak dituen komunitate nazional eta linguistiko desberdinen arteko gatazka eta elkarbizitza aipatzen ditu, abertzaleen eta euskaldunen ikuspuntuak bereziki kontutan harturik.

In this article the relationship between nationalism, democracy and freedom is discussed. The problem of minorities is also described. Nationalism is an unavoidable phenomenon and it should be judged in terms of universal humanism and direct democracy. First a general description is given and then, the situation of the different political and linguistic communities in the Basque Country is analysed, remarking the point of view of Basque nationalists.

## Sarrera

Nazionalismoa aktualitatean dago. Hasieran, European nagusi den pentsakera liberala harritu zen, uste baitzuen arazo nazionalak gaindituak zirela; laster, harriduraren ordezt gaitzespena aldarrikatu du sentimendu nagusi gisa. Bereziki, Ekialdean eta Jugoslavia ohian ageri den nazionalismo etnikoa ikertu dute; eta nazionalismo hauen obratzeak zenbat odol, zenbat bortizkeria, zenbat jende-eskubideen ukatzea ekarri duen ikusirik, ez gaitu harritzen gaitzespen honek.

Baina Europako Mendebaldean diren erresumei begira, nazionalismoaren protagonistak estatu demokratikoak dira. Nazionalismo hau ez da Ekialdekoa bezalakoa, *aitortua* ez delako, baina bestearekin parekatu daiteke. Krisi ekonomikoak gogor astintzen dituen gure erresumetan, Europako batasun "teknokratikoaren" aurka nazionalismoa aldarrikatzen dute kolore askotako politikariek. Larriago dena, xenofobia eta arrazismoa hedatzen ari dira sozietatean. Eta estatuak, nazionalismoa esplizituki aipatu gabe, herritarren xenofobia eta klase politikoaren nazionalismo basatia onartzen ditu: kanpotik heldu nahi diren etorkinen aurka hesiak altxatzen dituzte, eta barneko atzerritarrak kolektibo sospetxoso bilakatu dira.

Gerlan diren Ekialdeko nazionalismoek diktadura galdatzen dutela diote ikertzaileek; analisi sakonen bidez, esplikatzen dute nola nazionalismoak pentsakera unilateral eta estua eskatzen duen, nola militarrek zuzentzen duten borroka ia berez antidemokratikoa izaten den, nola, hitz batez, osakin guziak biltzen diren

totalitarismoa sortzeko. Arrazoia ematen diegu, baita beren gizarteei begiratzeko aholkua ere: seguraski ez dira aski konturatzen xenofobia eta atzerritarren marginatzea onartzen dituzten estatuak diktaduraren ohan-tzea antolatzen ari direla.

Halere, azken ikuspegi kritiko honek liberal zuhurrenarekin bat egiten du: han eta hemen, nazionalismoaren edukin moralak, edukin etikoak, arrunt negatiboa dirudi.

Denbora berean, Euskal Herrian eta ezkerren gabiltzanok beren aberria askatzeko ari direnen emaitzak positibotzat jotzen ditugu: gure tradizio militantearen arabera, aberri zanpatua askatzeko borrokak justuak eta beharrezkoak dira. Erasotuak diren nazionalitateekin identifikatzen gara, eta Ekialdean prozedura demokratikoen bidez independentzia egonkorra lortu dutenak ere badirela ondo dakigu. Gure belaunaldiko jendea, independentzia eta iraultza elkarrekin ikusteko gogoak markatu gintuen, eta herri menperatuen nazionalismoari erraz aurkitzen dizkiogu alderdi positiboak.

Adibidez, orain gutxi dela konpromezuaren zentzua duen azken intelektualetariko batek, *Hans Magnus Enzensberger*-ek, Alemaniako autonomoen borrokaren zentzu positiboa azpimarratzeko, haien kausa eta askatasun nazionalaren alde borrokatzen dutenena parekatu ditu. Ezker libertarioaren tradizioa ez da guztiz galdu, beraz; eta European anekdotikoa dena gurean oso bizirik dago.

Euskal Herrian ikuspegi positibo hau aski iraunkorra dugu: *Jon Mirande* dela eta Baionan UEU kari 1993an izan dugun mahainguruaren ondoan,

euskal nazionalismoak ez duela inongo arriskurik edukin faszista hartzeko baieztatu zidan lagun batek, gurea zanpatuen nazionalismoa delako eta, berez, desbideratze totalitarioen aurka ongi txertatua. Azken ikuspegi hau, hots, *nazionalismo zanpatzailea eta zanpatuen nazionalismoa arrunt bereizten dituen, oso onartua da gure artean.*

Nazionalismoari buruz diren jarrera aurkariak askatzeko, bi nazionalismo-mota, positiboa bata eta negatiboa bestea, kontrajartzen dituen ikuspegia, oso ezaguna eta hedatua da. Aurkezpen hauetan biok desberdinak, kontrarioak eta irreduktibleak direla ematen du. Gainera hizkuntzak ematen digu erantzun bat, gure artean nagusi den ikuspegi politikoaren arabera. *Edgar Morinek* dio (*Terre-Patrie*, 1993) “zorionez frantses hizkuntzak bi hitz ditu: abertzaletasuna eta nazionalismoa. Abertzaletasunak norberaren aberriarekiko amodia eta fideltasuna biltzen ditu; nazionalismoak, berriz, nazional ez den guztiarekiko etsaigoa, superioritatea eta oldarkeria dakartza...” Gurean ere prozedura hori aspalditik erabilia izan da, lehen aipatu dudan pentsakeraren ildotik: abertzaleak eta nazionalistak bereiztea. Baina hizkuntzaren funtzioa ez da ezagutza politikoa ordezkatzeko. Irtenbide klar eta erraz hau noraino den guztiz egia frogatzeko dago, gero ikusiko dugunez. Nire ustez, bi nazionalismo-motek, zanpatzaileenak eta zanpatuenak, karakteristika anitz partekatzen dute: ez dira bi errealitate desberdin eta irreduktibleak, baizik eta fenomeno beraren bi aurpegi kontrajarriak, bien artean mila lotura eta zubi dutenak. Beraz, sobera erraza eta arrunt eskasa da biok besterik gabe bereizten dituen prozedura. Aber-

tzaleak eta nazionalistak denak dira (gara) nazionalista; baina nazionalismo guztiek ez dute edukin politiko edo moral bera. Korapilo honen barnean ibiliko gara lan honetan.

### **Nazionalismo eta humanismoaren arteko etsaigoa**

Nazioa NATURALA ote?

Nazionalismoa gauza NATURALA omen da: baieztapen hau onartzeko nazioaren definizioa zentzu zabal-zabalaz erabili beharko dugu. Marxismoak eman zuen definizio mugatua, berriz, baztertu beharko da: marxistentzat nazioa kategoria historikoa zen, burgesiak bere merkatu batua lortzeko daraman prozedura politiko-administratiboari atxikia; hemen naturak ematen duen oinarria oso urruna da, eta historiak, humanitatearen historiak, du lehentasun osoa.

Are gehiago, naturaren eremuan gelditzeko nazioa nahastu beharko dugu bere oinarri etniko eta kulturalarekin, herritarrengan kontzientea edo inskontzientea, baina beti present, den sustraiarekin. Oinarri etniko-linguistikoa, usu, hain zaharra da non betikoa ematen duen, edo, beste modu batez esana, natural dirudien. Baina kontzientzia nazionala beste batasun etniko eta kultural zabalagoak ukatuz ere egin egiten da, hala nola serbiar eta kroaziarren artean, non erlijioak eta historiak moztu eta etsaitu dituzten oinarri etniko-linguistiko bera duten komunitateak; eraikuntza nazionalerako, sustraia linguistiko-kulturalak bortxatuz obratzen ahal den prozesua ere onartu beharko dugu, jakinik bere azken ondorioetan modu hau edo etniaren gaineko egiten

dena oso antzekoak direla... Hemen ere, natura ukatzen da.

Demagun, naturan gelditzeko, betidanik jenteak multzoka bizi izan direla, multzo desberdinez, eta desberdintasun honen nolabaiteko kontzientzia dutela. Hain eremu zabalean sarturik, ez dakigu gehiago zertaz mintzatzeko ari garenean, leinuaz, etniaz, nazioaz edo..., baina demagun desberdintasun hori nazioaren existentziarekin lotzen dela. Eta orduan bai, *lurraldetasunari* lotzen zaion nazioa naturala da animaliek ere duten instintoaren bidean barna dabilelako, abereak beren lurraldeari era naturalaz atxikiak diren bezelaxe. Lurraldetasunaren ondoan *familia* agertzen da, familia edo tribua edo klana, azken finean eremu berean gelditzen baitira termino guzti hauek: arbaso berak, ohidura berak, odol bera, jakinik "odol" hitzak odol organikoak baino karga askoz handiago daramala; jarrera hau pertsonen eta animalien artekoa da, azken hauetan "familia" beste zerbaitekin delako, deus ez usu edo multzo guztiz eratua besteetan. Baina instintoen heinean gabiltzalarik, fenomeno natural batez ari omen gara.

Kultura beste gauza bat da: era batez edo bestez, *kultura* bati lotzen zaio nazioa, kultura berezi bati. *Pierre Vilarek* dioenez, nazio-arazoa ikertzen saiatu diren guziek kultura aurkitu dute edozein identitate nazionalen oinarrietan. Berdin erlijioak edo geografiak kultura bereko komunitatea nazio desberdinetan banatzen dutenean: bakoitzak kultura hori oinarri nazional gisa errebindikatzen du, eta nortasun nazionala ezin liteke sustrai kultural horren gabeziak uler.

Baina kulturak natural dirudi eta, finean, historiaren ondorioa da: antzinako bibentzien selekzioa, era integratu batez gainera, etengabeki egiten eta aldatzen ari da. Paisajea, gastronomia, mintzaira, bai eta erreferentzia literario edo politikoa, historiaren ekoizpenak dira. Naturak emandako lurraldea itxuraz aldatzen da; denboraren urratsek markatzen gaituzte; eta oraingo egoera sozialak klase eta taldeen interes partikularrak kontrajartzen ditu.

Kulturak ere jatorrizkoa dirudi eta, berriz, mestizaje askoren fruitua da... Gure hizkuntzan diren sustrai latinoak, gure zuzenbidearen jatorri desberdinak edota gure sukaldearen osakin frantses eta espainolak denek ezagutzen ditugu. Kultura biziak duen gaitasun nagusia kanpotik datorrena bere baitan integratzeko indar berezia da: iraupenaren kontzientzia duen komunitatea originala da beti, nahiz eta originaltasun honetan besteekin partekatzen ditugun osakin anitz izan.

Baina, argia dena, kultura guztiz humanoa da, naturatik urruntzen gaitu, harriek, landareek eta abereek kulturarik ez baitute.

Eta jendetasuna, hain zuzen, animaliangandik bereizten garelako da: HUMANISMOA, hain zuzen, jo daiteke jendetasunaren gailurra. Animalien lurraldetasunetik urrun, eta familia klanikoaren zentzu estutik haraindian, humanismoak jende GUZIENTZAKO errespeto bera galdatzen du, jende-eskubideak denentzat berdinak, nahiz eta familia, odola edo jatorrizko lurraldea beste bat izan.

Horretan datza nazionalismo estua eta humanismo zabalaren arteko kontraesana, baina honek ez du esan

nahi abertzalea ezin daitekeela humanista izan, ez eta humanismoa ulertzeko modu kosmopolitarik ez dagoela.

Hain zuzen, edukin natural estua eta edukin humanista zabalaren arteko kontraesana agertzea fenomeno nazionalaren barnean ikertu behar dugu. Beraz, ez ditut aurrez aurre ezartzen nazionalismoa eta nazionalismorik eza, baina naziotasuna ulertzeko bi modu desberdinak. Gero ikusiko dugunez, nazionalismoaren ukatze soila errealitatetik kanpo gelditzen da, non ez den nazionalismo zapaltzailearen estakuru zinikoa.

Aurrera jotzeko, gogora ditzadan ezagunak diren jarrera primario batzuk:

*Bere aberriaren alde* hiltzeko prest egotea oso fenomeno hedatua da: berdin aurki daiteke (diakronikoki nahiz sinkronikoki) herri zapalduetan edo zapaltzaileen artean. Horrela ikusita, bistan da sentimendu honek ez duela edukin humanista unibertsalik, eta zapaltzaileek eta zapalduak, konfliktu berean sartuta, berdin bereganatzen dutela. Faxisten heroismoak ez dio faxismoari ezer onik ematen. Berdin *familiaren alde* hiltzeko gaitasuna... Gainera, hiltzea polisemikoa da: norberaren burua heriopean ezartzea eta besteak garbitzea, dena da hiltzea... Sentimendu natural hutsetan, aukerak ez du zerikusirik handirik etika unibertsalarekin.

Gogora dezagun aukera famatua: gure ama eta justiziaren artean ama dut hautatuko beti, zioen *Albert Camusek*. Justizia ere gauza polisemikoa da: Estatua mantentzen

duena ala jende guzieren duintasuna eta askatasuna begiratzeko dituenak, denak deitzen dira justizia... Eta hautu batzuk oso mingarriak izan daitezke, ez batere ebidentek. Berrikitan Aljerian islamistek *Tahar Djaout* idazlea hil dute; bere lagun *Salah Gemrichek* ondo azpimarratzen duen bezala, "klanismoa ez da ahaidetasuna: ahaidetasunaren ukatzea da, kolektibitatearen aurkako krimena". Eta, beharbada, aberria eta familia zentzu klaniko eta estuaz ulertzea edo, hobeki esanda, bizitzea, historian zehar oso fenomeno hedatu eta iraunkorra da (gure Ahaide Nagusiak gogoratu), baina denbora berean krimen askoren iturburua da.

Edukien humanistaren bidetik, zerbait gehiago da *besteen aberriaren alde* hiltzeko gaitasuna, *Bakuninek* ematen zion zentzuan: "Herri zanpatu guztien abertzalea naiz", zioen, eta abertzaletasunaren edukinean argi lotzen zituen oinarri naturalak eta osakin etiko-politikoak...: "Aberria, nazionalitatea, indibiduotasuna bezala, egitate naturala eta soziala da, izate berean fisiologikoa eta historikoa. Gure errespetoa merezi du. Haren bortxatzea gaiztakeria da eta mehatxatua eta bortxatua den bakoitzean printzipio sakratu bilakatzen da. Hona hemen zergatik zinez eta beti aberri zapaldu guztien abertzalea naizen". Hemen, beraz, *zapalkuntzaren inguruko dialektikak sortzen du odola isurtzeko emankortasuna*, eta abertzaletasuna humanitate osoaren barnean sartzen da, jendeek oro askatasunaren alde daramaten borrokaren barnean. Ondo bereiz daiteke herri zapalduaren abertzaletasuna eta estatu handien

inperialismo edo harrokeria. Baina arazoa, gero ikusiko dugunez, bereizketa honek mugatzen duen dialektika errazetik haraindian eskapatzen da.

Hala eta guztiz ere, abertzale izateko gaitasuna eta gutizia zituelako, eta hain zuzen horregatik, *Bakuninek* eskubide morala zeukan arrunt naturala gelditzen den abertzaletasuna salatzeke: "Abertzaletasun naturala hauxe da: bizimodu kolektibo tradizional edo heredatuei atxikimendu instintiboa, berehalakoa, inongo kritikarik gabekoa; era berdinez, instintiboki eta berehala, beste bizimoduen aurkako etsaigoa da. Abertzaletasuna, beraz, alde batetik egoismo kolektiboa da, bestaldetik gerla. Abertzaletasun naturala zibilizazioaren kontrarioa da, eta jendartean humanismoaren garai-penaren aurka ezartzen da". Nazionalismoaren salakuntza hau, aberri "zibilizatu" handien indarraren izenean herri txikien kontra egiten bada, edo kosmopolitismo harro eta antzuaren alorretik nazionalismo guzien aurka egiten bada, ez da sinesgarria. Naziotasuna fenomeno kasik unibertsala izanki, haren kritika bakarra naziotasun guziak errespetatzen dituen unibertsalismetik egin daiteke.

### **Nazionalismoa eta pentsakera politikoak**

*Ikuspegi politikoek* ere isladatu dute nazioaren barnean kausitzen den egoera kontradiktorio hau, naturak emandako eta humanismoak sortutako osakinen artekoa. Ikuspegi batzuen azalpen laburra egin daiteke:

Anarkistek:

Jendearen sentimendu nazionalz diotena aipatu dut arestian.

Alta, hau ez da beren analisiaren gai zentrala. Anarkisten ikuspegiaren erdian dagoena Estatu-Nazioa da: naziotasuna eta aberriaren amodioak naturalak dira, nahiz eta edukin desberdinetako izan; berriz, Estatuak ez da Aberria, eta patriotismo politikoa, esan nahi baita Estatuaren amodioa, estatuak sortutako abertzaletasuna, ez dagokio era zuzen batez naziotasun naturalari. Alderantziz, haren espresamolde desbideratua da, abstrazio gezurtiak endekatua eta beti minoria zapaltzaileen probetxurako. Estatuari buruzko analisi orokorra aurkitzen dugu hemen eta, beraz, anarkisten abertzaletasuna ez da inoiz estatuzalea izango. Nazio zanpatu guztien abertzalea eta nazio-estatu eratu guzien edo gehienen etsaia, handiek txikiak inbaditzen zituztenean inbadituen alde ageri baitira usu anarkistak. Horiek horrela, anarkisten jarreraren bi ardatzek aski argia dute beren edukin etiko-politikoak: Lehena: *naziotasuna gauza naturala dela eta estatua, berriz, naturaz zapaltzailea*. Bigarrena: *borrokan, beti zanpatuen alde!*

Marxistek:

Ez da batere gauza bera. Anarkismoak kategoria naturalei ematen dien garrantzia oso eskasa da marxismoan, non edukin humanoak, esan nahi baita naturaren aldatuz eta bortxatuz historian ematen dena, lehenetsun osoa daukan. Hemeretzigarren mendeko ideologia moderno eta zientista da marxismoa: natura oinarri soil gisa agertzen da, jendeen lanak aldaraziko duena. Beraz, nazioa kategoria historiko

hutsa da, burgesiak sortuta eta komunismoak desagertaraziko duena. Estatuaren kontsiderazioa ere beste bat da: guztiz beharrezkoa eta positiboa da iraultzaren bidean. Gainera, iraultza honen erdiesteko estrategian proletarioaren interesak dira nagusi. Gainera dezagun berezitasun nazionala kulturari atxikitzen bazaio ere, kultura berezitua laborari aitzinkapitalisten ezaugarri gisa kontsideratzen dutela, eta patriotismo langile izan daitekeen ala ez jakiteko nahikoa eztabaida teoriko lanbrotzuak izan direla marxisten artean. Azken finean, gainditze dialektikoa eta behar estrategikoak zirela eta, oso *tratamendu oportunistak* ematen zitzaion arazo nazionalari: nazio zanpatuekin aliantza onartzen zen inperialismoaren aurka, baina estatu proletarioaren batasuna kolokan ezartzen zuen edozein nazionalismo atzerakoia zen, etsaia beraz... Gauza bera egin zuen marxismo sobietarrak Sobiet Batasunako nazioek zuten bereizteko eskubideaz: eskubide negatiboa da (dibortziazteko eskubidearekin konparatzen dena), eta iraultza proletarioaren interesen arabera obratu behar dena; Sobiet Batasun ohian, Alderdi Sobietar batu eta zentralizatuaren eskuetan zegoen, azken finean, errepublikek bereizteko zeukaten eskubidea obratzeko baimentzea. Hots, arazo nazionalak ez dauka autonomia handirik, berdin bere alde historikoaz (non garapen ekonomikoak sortutako batasunak emaiten baitzizio hasiera, edukina eta amaiera), berdin estrategian (non iraultza proletarioaren Alderdiak interpretatzen duen zer

nazionalismo-mota lagundu edo borrokatu behar den): bere ikuspegi nagusietan, marxismoak nazionalismoari ematen dion edukina klase-borroka maskara ideologikoa edo tresna estrategikoa da. Mediatizazio honek esplikatzeko du zergatik marxismoaren baitan nazionalismoa izan den saltsa guztiekin mahairatua. *Engelsek* inbentatu zuen "historiarik gabeko nazioen" kontzeptua, azpigaratuak ziren populuen desagertzea historiaren martxa geldiezinaren aldarean sakrifikatzea onartzen duena, eta, gainera, populu hauetako sozialistak kontent egon behar... *Staline*nek, beste muturrean eta beste egoera batean, eman zion "patriotismo sobietarrari" leku zentrala sozialismo erreala iraunarazteko... *Rosa Luxemburgok* ez zuen Polonia independenterik nahi horrek oztupo egingo baitzion iraultza komunistari... *James Connolly* irlandar abertzalea zen... Eta nola ez aipagurean espainolista eta independentista marxisten artean izandako etengabeko polemika! Nire ustez, marxismoa guztiz beharrezkoa zaigu naziotasunaren inguruan gertatzen diren klase-jarrerak ulertzeko, baina arazo nazionalak dituen edukin autonomoak, berezkoak, naturaren egitateari dagozkionak, ez ditu ongi ulertu. Arazo nazionala iraultza sozialaren baitan inguratze eta egosteko entseguek oso fruitu desberdinak eman dituzte, oinarria gaizki planteiatua zelako: nazionalismoa eta klase-borroka *irreduktibleak* dira, nahiz eta usu guztiz lotuak ageri. Baina batek ezin bestea esplikatu, are gutxiago bere baitan eduki.

Liberalek:

Haien ideia nagusia, nire arabera, hauxe da: zapalkuntzaren aurkako nazionalismoa *originala* eta onargarria da; baina edozein nazionalismo *deribatu* edo zanpatzaile bilaka daiteke. Anitz idatzi zuten horretaz bi gerla mundialen artean, eta, egia esan, nazionalismoak durduzutzen zituen pentsalari liberalak, batez ere nazismoaren oinarri-oinarrian ezartzen zelako. Nazionalismoa gauza kontingentetzat jo nahi zuten, zibilizazioak desagertaraziko zuen fenomeno zikina bezala. Kolonietan mugimendu abertzale antiinperialistak hedatu zirenean, liberal anitz ezarri zen haien alde eta beren estatu inperialista propioen aurka. Gaurregun, Hirugarren Munduko nazionalismoen edukin progresistaz inork ez du sinesten, eta Europan bertan ikusten ari garen espektakulua oso mingarria da, batez ere humanismo unibertsalaz preziatzen dutenentzat. Ez da beraz harritzeko bi gerleen arteko jarrerak itzultzen badira: nazionalismoa gauza basa, kontingentea, libertate unibertsalaren bidean gainditzeko oztopoa... Eta orduan esaten zuten gauza bera gogoratzen digute orain. Nazionalismo original eta deribatuaren ikuspegia beste modu batez, baina edukin berarekin, gogoratu du *Reinhart KOSELLECK*ek: "beste arazo bat: minoria maioria bilakatzen denean beti intolerantea da. Garaituz geroz, intolerantzia emendatzen da... erregela enpirikoa da."... eta ez zaie arrazoia falta. Ikus dezagun, oro har, nazionalismoa ez zaiela liberalei gustatzen, ia gustu txarreko gauza da, jende ondo hezien artean baztertzea

(*moral insanity* zioen *Erich FROMM*ek.... Kontzeptu hauetaz ikus *CJH Hayes* 1928; *L Wirth* 1945, 1963). Postmoderniarekin bat egiten dute.

Nahitara baztertu dut PENTSAKERA FAXISTA, nahiz eta haren ikertzea guztiz beharrezkoa eta argigarria izan. Hartu ditudan hiru pentsakerak progresistak dira: beraien baitan nazionalismoaren alde berekoiak negatibotzat jotzen dira, eta haien gainditzeko bidea humanismo unibertsalak dakar, nahiz eta azken kontzeptu hau oso desberdina izan hiruen artean. Faxisten pentsakeran, aldiz, humanitatea ongi bereizia da nagusien eta esklaboen artean, eta populu batzuek nagusiak izateko dituzte bokazioa eta beharra. Herri naturalen arteko borroka ere naturala da eta azkarren garaipena gauza naturalena. Honek ez du baztertzeko faxistek beren herriek sofritutako zapalkuntza nazionalaren aurkako altxatzeko gaitasuna eta jazarpen honek sortzen dituen sentimendu sarkorrak: nazismoaren garaipenan, adibidez, Lehen Mundu-Gerraren ondorioen aurkako jazartze aleman abertzalea oso nabaria da, eta aski da *Ernest Von Salomonen* "Galdeketa" irakurtzea, literatura handiari esker barne barnetik ikusteko nolako abertzale motibatuak ziren faxista asko, aberri umiliatuaren amodioaz mugituak...

Baina lan honen helburua pentsakera progresistaz aritzea da, jarrera progresista eta iraultzaileen tradizioaren haritik abertzaleen esparruan idatzia baita. Eta edukin etiko nola estrategikoak ikertzeko, eta ikuspegi anarkistek bereziki gogoratu diguten bezala, Estatuaren eginkizuna aztertu beharko dugu.

## **Nazioak estatu nahi, eta estatua eskusioaren gainean finkatzen da.**

Natura eta humanismoaren arteko dialektikara itzuli beharko dugu. Nazionalismoak duen edukin berekoiaz zerbait mintzatu gara; demokrazia errepresentatiboak ukatu nahi omen ditu naturak emandako berekoizkeriak, afiliazio etnikoaren gainetik herritar guztien berdintasuna balore nagusi gisa ezartzeko. Gurean, nazionalismo etnikoa gainditzeko proposatzen den formula demokrazia da. Beharbada, demokraziak ezin gaindi dezake beste alor batean gertatzen den fenomeno nazionalista, eta gaurko gaiarako bi esparruen arteko harremanek emanen digute beste ikergai nagusi bat.

Baina dudatan ezar daiteke demokrazia errepresentatiboaz erakundetzen diren gure estatuetan nazionalismo etniko edo naturalak leku berezi edo nagusirik ez ukaitea. Hemen ere naturak bere muturra erakusten du: azalezko ikuspegi batez ez badirudi ere, jende-eskubideak errespetatzeko printzipioen azpian dagien osakin "naturalaren" parte agertaraz daiteke. *Hannah Arendtek* seinalatu zuen arazoa (1943) eta berrikitan *Giorgio Agembem* filosofo italiarrak gogoratu du. Errefuxiatuen egoeraz idatzi dute: beste estatu batera joaten diren pertsona horiek ez dute eskubide zibiko handirik, batzuetan ez eta pertsona-eskubiderik ere; haien erantzunkizun legala poliziak darama eta beren pertsona-eskubideak bakarrik elkarte humanitarioek ezagutzen dizkiete; beraz, hiritarrei ematen zaien tratu legal "normaletatik" kanpo dabilta. Ia gauza bera esan genezake legez kanpoko emigratuei buruz; eta, segun erre-

sumetan, atzerritar legalen egoera oso urrun edo bederen aski urrun dago eskubide normaleen obratzetik.

Hitz batez: demokraziek pertsoneri ezagutzen dizkiete jende-eskubideak *estatuaren hiritarrak diren neurrian*. Praktikan, jende-eskubideen deklarazioek (1789tik hona) ez dituzte edozein pertsonaren eskubideak begirutzen. Eskubide horien onura nazionaleri erreserbatzen dieten neurrian, funtsean egiten dutena hauxe da: soilki, edo nagusiki nahi bada, bizi naturalaren legea estatu-nazioaren ordenu juridiko-politikoaren barnean bermatzen (eta mugatzen) dute. Kontzeptu hau esplikatzen behar da: *Agemben*-ek seinalatu duen bezala, "natio"aren etimologian "nascere" aurkitzen da, jaiotza. Implizitua, esan gabe, hauxe dago: komunitate baten barnean sortzeak berak, naturazko egitate huts honek, sortzen duela hiritar-eskubideak ukaiteko gaitasuna. Gero egindako eraikuntza legal eta konstituzionalek akomeatzen dute "odol-eskubide" hau, izkutatzen dute batzuetan, baina krisi-momentuetan azpian dagoen oinarria argi agertzen da. Oraingo gertakariak frogatzen digute egia honen iraupena: *Pasqua* barne-ministroaren politikak, hain zuzen, Frantziar bizitzeko, poliziaren kontrolak jasateko, frantses nazionalitatea erdiesteko, bideratu duen filosofia politikoak ez ditu "odol-eskubideak" esplizituki aipatzen, baina praktikan izate etnikoari lehentasun osoa ematen dio, eta Eskubideen Estatuaren oinarrian argi eta garbi ezartzen du odola eta arrazaren legea. Inor gutxi arranguratu da. Demokrata liberal "soft" askorentzat, norberaren estatuak defendatu behar ditu onura eta libertateak, eta horretarako normala bezain beharrezkoa da atzerritarren aurkako hesiak altxatzea.

Horiek horrela, inor ez da harrituko bere jaiotza eta kulturari dagozkien eskubideak ukan nahi dituenak, egoera natural honi zuzenki dagokion egitura estatuala eskatzen badu. Besteen estatuan minorizatua edo ukatua egotea, egoera lanjerosa da biziki... Horiek horrela, kontzientzia hein batera heldutako komunitateak estatu propioa eskatzen ohi du, eta eskaera honek erakusten du hobekien noraino heldu den kontzientzia nazionala. Nazionalismoa definitzeko proposamenen artean, batzuek azpimarratu dute estatu-beharraren esplizitasuna: haren aldarrikapen biziak erakusten ditu, beste edozein erizpidek baino hobeki, kontzientzia nazionalaren sakontasuna, hedapena eta indarra. *K. Symmons-Symonolewicz*-ek (1965) zioen “nazionalismoa da talde baten solidaritate aktiboa, nazioa dela aldarrikatuz eta estatu izateko gogoarekin”, eta gaineratzen zuen definizio hauetan ez zela kontutan hartu behar ez solidaritatearen oinarria (kultural, etniko, lurrezkoa) ez eta ere mugimenduaren esanahi etikoa, irizpide hauek guztiz aldakorrak eta batzuetan kontrarioak izan daitezkeelako estatu izan nahi duten komunitateetan.

Eta, alta, historiak sortutako nahasketek nahasketa berriak ekartzen dituzte, eta egun kanporatua izan denak beti nahiago du arbasoen lurra. Esan nahi dudana hauxe da: kontzientzia nazionala duen edozein talderi lurralde propio berezitua ematea omen da, lehengo ikuspegi batez, arazoak konpontzeko irtenbide errazena. Horrela eskubide naturalak, zuzenbide positiboa eta jende-eskubideak oro, zentzu bakar eta berekoa izanen dira Estatu-Nazio bakoitzean. Baina sozietatea nahasia da: lurralde askotan populu des-

berdinak bizi dira elkarrekin, eta emigrazioen mugimendua geldiezina da, jende askori beren jatorrizko lurraldean bizitzeko gogoak ez baitizkio asetzen goseak eta miseriak. “Garbiketa etnikoa”ren nahia nondik datorren konpreni daiteke; nora eramango duen ere bai: irtenbiderik gabeko zulora. Beren jatorrizko lurretatik kanporatuak direnek itzultzeko tirria mantenduko dute: hor dituzue palestinarrak eta hor izanen kroaziarrak edo bosniarrak. Eta eskubiderik gabe aurkituko diren emigranteen egoera, gaitz moral handia izateaz gain, gatazka sozialen eta desbideratze arrazista eta diktatorial askoren sorburua izanen da.

Jende-eskubide eta herri-eskubideen errespetua ekarriko duen sistema politikoa, nire ustez, nazioa, estatua eta jende-eskubideak batasun organikoan batzen dituen erakundetze politikoetatik haraindino bilatu beharko da... Estatua, gaurrengungo ideologia liberaletan, libertateen berme bilakatu da eta progresistek oro gurtu beharko genuke. Ideia honek topo egiten du estatua kritikatzeko eta borrokatzeko tradizio libertarioarekin. Eta borroka ideologiko honetan berriak ez dira aurrerakoienak: estatua *bere herritar zintzoen libertateen bermea* izan daiteke, baina hasiera-hasieratik argi da sistematik kanpo direnentzat inongo kupida ez duela izanen. Demokrazia eta Liberalismo ekonomikoaren garaipenaz oratu den Munduko Ordena Berria, zanpatu, torturatu, marginatu eta gosetuen kopurua ikaragarria da. Gure erresumetako demokratek onartzen dute sistema, beren estatu propioek babestuta; baina salaketa ideologiko aktualen denbora heldu da (ikus, adibidez, *Jacques Derrida*, *Spectres de Marx*), erakutsiz justizia (bere

zentzu unibertsalean) ukatzen duen demokrazia onartezina dela.

Honela, betiko puntuan gaude, eta horregatik diot jende eta herri *guzien* libertatea bermatzeko nazio-estatu berekoietatik haraindian jo beharko dugula.

Beraz, errepika dezadan. Ikuspegi NATURALAK humanismoaren ukapena dakarrela bistan da. Moralki, etikoki, natura soilak emandako jarreraren kontra mintzatu naiz, eta kritika hau aplikatu diet bai nazionalismo hutsari, bai eta horren gainean finkatzen diren estatuei, estatu demokratikoak barne.

Baina komunitate "naturala" hil ala biziko egoeran sentitzen denean, diskurtso moralek ez dute eragin handirik. Bere ikuspegi osoa bizitzeko beharrak kondizionatzen du, eta bizia konserbatzeko instintoak hartzen du lehentasun osoa, politikan hala nola jendeen sentimenduetan. Kontzientzia agonikoa duen komunitateak etsaiei egindako sarraskiak justifikatzen ditu eta hau konstante historikoa da. Halere, honek ez du esan nahi horretaz kritika egiteko gaitasuna galdu behar denik. Azken finean, zanpatua den herriari ematen bazaio askatasuna lortzeko laguntza, laguntza internazionalaren indarrak ematen dio sinesgarritasun morala borrokan ere etika humanista errespetatzeko deiari. Arazoa askoz nahasiagoa da kontzientzia agonikoa bera duten bi komunitateen artean etsaigoa dagoenean, batez ere lurralde bera partekatzen badute: egoera hauetan *inkomunikazioa* derrigorrezkoa da, bien artean eta kanpokoekin ere.

Honek dakar kanpoko interbentzioei buruzko galdera anitz:

noraino delako interbentzioa zilegi da zapaltzaile eta zapalduen arteko diferentzia argia ez denean? Zeren eta, lehen kasuan, nazionalismo erasokor handi batek herri ahulago bat irentsi nahi duenean, interbentzioa zilegia da... interbenitzeko gai direnek horretarako gaitasun morala balute. Bakunin Dresden eta Nazioarteko Brigadak Espainian ez dira marineak bezalakoak...

**Euskal Herriaz: Hiru ikuspegi.  
Bi nazionalistak eta nazionalista ez den (?) bat: Azkenean bi geldituko zaizkigu.**

Euskaldunen arazoa aipatu beharko genuke. Eta horretaz erreflexionatzeko, bi ikusmolde ikertuko ditut:

*Abertzaleena, betikoa:* Komunitate zapaldu bat dago hemen, euskaldunena. Bere nortasuna non finkatzen den jakiteko, nazionalistek osakin desberdinak aipatu ditugu: arraza *Sabino Aran*ak, etnia *Federiko Krutwig*ek, hizkuntza anitzek. Nik dakita zer aipa daitekeen, baina komunitate honen existentzia ebidentzia historiko eta soziala da, hala nola bere etengabeko aldarrikapena independentzia lortzeko. Komunitate hau noraino Euskal Herriko biztanleria guztiarekin identifikatzen den beste arazo bat da, eta hara itzuliko gero. Baina haren gainean finkatzen den ideologia nazionalistarentzat afera argia da: eskubide moral guztiak ditugu libre izateko eta gure askatasun nazionala lortu arte ez da hemen bakerik izango.

Jarrera ezaguna denez, ez naiz horretaz tematuko.

*Oraingoa, liberalismoaren edo postmodernitatearen pizkundearekin*

*datorrena*: Europako pentsamendu liberalean diren oinarritzko premisak bereganatzen dituen pentsakera da hau. Argazki batean laburtzeko: serbiar edo kroaziarren nazionalismo etnikoa arbuiatzen du, eta arrunt miresten demokraziaren gainean Sarajevon eraiki nahi den sozietate anitza.

Esan dezadan pentsakera honen oinarritzko premisak arrunt onargarriak iduritzen zaizkidala. Askatasunezko jendarte homogeneitatearen kontrarioa dela diote. Komunitate etniko garbien gainean estatuak eraikitzeo nahikariak ekartzen dituen desmasiak salatzen dituzte: gerla etniko basak ekialdean (Jugoslavia ohia da ikerpuntu nagusia), eta atzerritarren eskusioa hala nola muga iragan-gaitzen politika Mendebaldeko estatuetan. Hots, han eta hemen estatu autoritarioen oiantzea dagite.

Honen aurka proposatzen den jendarte (ikus *Ralf Dahrendorf*) jendarte zibil, liberal, sozial eta internazionalista da, *aniztasunaren* gainean (*hétérogénéité*) finkatu behar dena.

Beraz, diote, askatasuna ez da jatorri etnikoan finkatzen ahal, baizik eta mestizagearen baloreen gainean... Gero itzuliko gara mestizagearen kontzeptuaz.

Liberalek estatuen nazionalismoari buruz egiten duten hausnarketa berbera egiten ari da orain minoritateen arazoaz, eta horrek ere zuzenki hunkitzen gaitu. Ez dezagun ahanz gure sozietateen bakea minoritateen existentziak konprometitzen duela...

Dudarik gabe, eta ikuspegi filosofiko zabal batetik ikusia, minoria bat

*markatzeko* hartzen den irizpidea oso bakarra da pertsonen konplexutasunen ondoan ezartzen denean: gu bezalako komunitate linguistikoak hizkuntza du bereizgarri, baina pertsona izateari dagozkion beste mila osakinak partekatzen ditugu inguruko komunitateekin (biologian, historian, kulturean, e.a.etan). Osakin bat bakarra beste guztien gainean ezartzea, batez ere besteekin komunikazio baketsua ukatu arte baloratzen bada, alienazio ideologiko handiaren ondorioa da; komunikazioa hautsirik gerlaren logikak lehentasuna hartzen duenean, basakeria guztien oinarria da; eta komunikazioa ukatzeko bidean, unilateralkeriak diktadura eskatzen du.

Kritika hau egia da. Baina, beti bezala, bere ondorioak ongi neurtu behar dira. Minoritate baten markatzea bi moduz egiten da: afirmazioaz (minoritateak bere osakin propioak bereganatzen eta aldarrikatzen dituenen) eta ukazioaz (maioritateak minorien karakteristikak zuzenki edo zeharka zanpatzen dituenen). Eta ondorioak ez dira berdinak.

Frantziako oraingo eskuin muturreko intelektualek, adibidez, berezitasunaren diskurtsoa bereganatu dute kanpotarren eskusioa justifikatzeko. Bakoitzari bere kultura, diote, eta mestizagerik ez dute nahi: azken finean, zanpatzaileen pribilegioak eta arrazismoa begiratzen dituzte, beti bezala. Frantzian berean ere minoritate guztiak ukatuak dira beren existentzia ezagutzeko bideak oro ukatzen zaizkielako. Eta estatu arrazistetan larru-kolorea da zanpatzaileek erabiltzen duten etengabeko irizpidea minorizatuak direnak baztertzeko. Markatzearen jatorria nola, ondorioak hala.

Beraz, mestizagearen balore positiboak ez dira bizikorrak izanen bi baldintza hauek betetzen ez badira:

- \* Minoritatea ezagutua izan behar da bere karakteristikak errespetu osoaz.
- \* Minoritate guztiak eta majoritateak elkarrekin bizitzeko egiazko demokraziaren barnean egon behar dute, osakin amankomunen gainean eta norberaren errespetuaren gainean eraikitako demokrazian.

Berriz, mestizageak ez du balore positiborik izanen bakearen truk eta beldurrez minoria isiltzen bada. Hor ez da mestizagea, alienazioa baino: minoria bortxatua gertatzen da eta, bere karakteristikak ukatuz, bortxatzaileen baloreak bereganatzen ditu...

Argi dezadan esan nahi dudana: ados mestizagearen apologia egiteko, non minorien egoera analizatzeko eta irtenbidea emateko zapalkuntzaren ikusteari bere lekua emaiten baitzaion. Diferentzia/zapalkuntzaren arteko dialektikan bi poloak ikusi egin behar dira. Gu euskaldunak ez gara altxatu diferenteak garelako, baizik eta gure diferentzia zanpatua izan delako: hona lehen egia; baina diferentziari lehentasun osoa emaiten badiogu, osakin amankomunak ukatu arte, nazionalismo intsolidario eta basatiaren bidetik abiatuko gara, eta hona bigarren poloa. Hain zuzen, eta lehen aipatu dudanez, diferentzia zentzu intsolidario honetan ulertzen du eskuin-mutur berriak, Frantzian ezaguna den *Alain De Benoist* bezalako ideologoen ondoan.

Eskuin-muturreko nazionalismotik urruntzeko, guk bigarren alde hau ekidin behar badugu, gure auzo majoritarioek, beren aldetik, kendu

behar digute menperakuntza. Menperakuntza ez kentzea gure balizko nazionalismo intsolidarioaren beldurrez, zinismo nardagarria da.

Eta hemen dator analizatu behar dugun korapiloa. Gure nazionalismoa ukatu nahi da balore demokratiko moderno eta anizkorren izenean. Baina majoriaren legea onartzen duenak balia ditzake balore horiek argudio soil gisa. Konplexurik gabe ikertu behar ditugu modernoek kritikak, hala nola dolurik gabe ere ikertzen ditugun gure nazionalismoaren alde ilunak.

Arazoa, beraz, hauxe da: oinarrizko premisa liberal-aurrerakoiak nola aplikatzen dituzten hemengo anti-nazionalistek. Zeren eta oinarrizko funts urrunean zuzen ibiltzeak ez baitu gero egiten den guztia justifikatzen...

### **Askatasuna, nazionalismoa eta demokraziaren arteko harremanak.**

Ez ditut nazionalismo espainol eta frantses basa eta esplizituak aipatuko; errepika dezadan, berriz ere, lan honen xedea eraikitzailea dela, ikuspegi aurrerakoiaren analisis bidez aitzina jotzeko asmoaz ondua. Arazo nagusia, niretzat, zubiak eraikitzea da eta komunikazioa ez moztea: naziotasunaren errespetuaz eta humanismoaren beharraz egoerari erantzuna ematea. Nola?

Esan gabe doa: gure artean ere horrelako eztabaidak izan dira eta badira. Originaltasun handirik ez dugu gaur.

Baina orain gaurkotasun osoa duen gaia hauxe da: minorien nazionalismoa eta guztirako demokrazia

bekoz beko ezartzen dira etsaiak bailiran. Hemen ere, inkomunikazio eta elkarrizketaren artean kausituko gara. Has gaitezen:

### **Euskal nazionalisten aldetik:**

Gaurregun inor gutxik aipatuko du OINARRI ARRAZIAL soila euskal nazioarentzat: alta, nahikoa da politikari nazionalista ezagun batek Rh-a aipa dezan (arreta handirik gabe, egia esan) maiortate espainolaren bozeramaile anitzek arrazismoaren mamua berpiz dezaten. Hemen, marka arraziala besteek leporatzen digute, eta honek argi agertarazten du noraino gatazkaren sustraiak irrazionalak eta "naturalak" diren –OINARRI ETNIKOAK ez da oso modan gure hizkuntza politikoa, nahiz eta kulturazko euskaltzaleen artikuluetan irakurtzen den. Egia esan, arraza eta etniaren arteko desberdintasuna nabaria da espezialisten lanetan, baina ez batere hizkuntza arruntean: arrazarekin lotzen da, eta arrazismoak daraman kargak baztertu du etnia terminoa hizkuntza politikorik –OINARRI LINGUISTIKOAK, berriz, gero eta leku gehiago hartzen du euskaldunengan, eta gatazkagai nagusi bilakatzen ari da. Hain zuzen, bere ebidentziaz eta bere hargaitasunaz bilakatu da borroka-eremu. Gero itzuliko gara alde hauetara.

### **Euskal nazionalistak ez direnen aldetik:**

Oinarri etnikoaren etsaien artean, inor gutxik aipatuko du ESPAINOLTASUNAREN NAGUSITZA ABSOLUTUA, oraindik kontserbatzen diren euskaldunen jatorrizko ezaugarriak ukatzera eramaten duena; nazionalismo espainol basa sobera lotua egon da frankismoarekin eta zilegitasun politiko gutxi dauka. "Inperioaren baloreen nagusitza..."

beste garaietako hizkuntza anti-dilubianoa da. FRANTZIAN, berriz, ez da batere harrigarria MESPRETUXUZ BETERIKO JARRERAK aurkitzea; euskalduntasuna ezkututzen, baztertzen eta mespretxatzen da, baina frantses txobinismoa etorri handiko ideal errepublikarren jazkeraz mozorrotzen da.

Hegoaldean, euskalduntasuna oinarri etniko eta ama-hizkuntzaren haraindian ezartzeko, herritasuna ZIUDADANIA SOILAK ematen duela behin eta berriz errepikatuko da. Hau da lehen aipatu ditudan ikuspegi moderno liberalekin lotzen den haria. Teorian, *José Ramón Recalde* gogoratu behar dugu: euskal nazionalismo "esentzialista"ren aurka eraikuntza nazional demokratiko-herrikoia aurkezten zuen zegoeneko 1982an; etorkizunari begira pentsatua zen, zioenez, proiektu amankomun demokratiko gisa non eskubide kulturalak eskubide indibidual gisa gelditzen diren. Gainera dezadan *Recaldek* ez zuela bere pentsakera ezkututzen: bere modeloak "era harmoniko batez konpondu nahi zuen euskal nazioaren eraikuntza komunitate nazional espainolaren barnean". Hau antinomikoa den edo ikertuko dugu gero, baina neure erreflexioaren ardatz nagusia beste bat da: noraino mota honetako proiektuek, eskubide kulturalak indibiduotasunaren alorrera mugatuz, ez duten ukatzen minorien ezagutza osoa eta, beraz, ez duten errazten liseritze kulturala. Politikan, sozialistak eta bereziki Euskadiko Ezkerra ohia ibili dira alde hauetatik. Sozialisten bilakabidea kontradikzioz beteta da: berdin egin dira espainoltasunaren defendatzaile sutsuenak *García Danborenearen* denboretan edo euskalduntasun demokratiko-integratzailearen poetak 1993an, herritar

guztiak bi hizkuntzetan berdin trebe izanen diren etorkizunaz amesteko adina. Hasiera-hasieratik PSOE ibili da bi poloen artean, eta frankismoaren antzineko historiak erakusten digu nola betidanik nabigatu duen espainolismo eta autonomismoaren artean. Proiektu integratzaile bat eta bakarra defenditzeko, koherentzia gehiago izan du Euskadiko Ezkerrak. Gisa guziz, beren azken Aberri Egunaren gaia nabaria da: "basko guztien eguna da, eta ez soilki nazionalistena". Bistan da EEK apostu historikoa honen gainean bota zuela, esan nahi baita Euskadiko sozietatearen pluralismoa bere baitaratu zuela, aniztasun hori bere identitate-zeinu bilakatzeko.... Baskoak, beraz, Euskadin bizi garen guztiok gara, eta, ondorioz, euskaldunen (euskara dugunen) egoera *minoría lingüísticoarena* bilakatzen da, jatorrizko ezaugarria (euskara) inori eta inon inposatu ezin dakiokela. Hau, *minoría*-egoera, ez da beraiek ateratzen duten ondorioa, baina bai praktikan gertatzen ari dena.

Minoriekin berriz ere egin dugu topo. Eta ez dakit noraino zehatza den *minoríaren kontzeptua*. Edukin semantikoa nahasia da, batzuek zabaltzen eta besteek murrizten dutena. Minoritatea izateko osakinen artean, batzuk ikerle denek onartzen dituzte: komunitate izatea karakteristika propioekin, eta bizi diren erresuman nagusiak ez izatea; gero, bere nortasunaren kontzientzia ukaitea; eta, bukatzeko, nortasun honengatik zanpatua izatea. Horiek horrela, euskaldunei ikerle batzuek onartzen digute minoritate izatea, beste batzuek ukatzen digute. Geuk, oro har, euskaldunek minoritate lingüísticoaren ezaugarri soziolinguistikoa ditugula onartzen badugu ere, minoritate nazionala garel

esatera gutxitan gara heldu, gure lurretan baskoak maioritatea baikara eta euskal nazionalismoak ikuspegi integratzailea izan duelako, kanpotik etorritakoak integratzeko prest non euskalduntasuna etorritakoek bereganatzen duten. Euskalduntasuna zer den ez da argia, eta hizkuntza eta baskotasunaren artean dagoen zuloa luzatzen edo murrizten da segun zertaz eta nor mintzatzen den... Bego. Nor den euskaldun, edo basko, galdera labaintsua da, baina erantzuna merezi duena. *Sabino Aranak* bereiztu zituen euskaldunak eta euzkotarrak, eta lehentasuna arrazari eman zion maioritatea euzkotarra zelako... Gaurregun ezin genezake hain errazki aipatu arraza: Austwitch gertatuz gero ezer ez da berdin. Baina, batzuek nahi duten bezala, euskalduntasun-baskotasuna DNI-k ematen duela sinestea, besterik gabe, nazionalismoaren inguruan hainbeste mugitu den komunitate bereziaren biziak eta historiak irri egitea da. Eta fenomenoaren ulertzeko egiten den edozein kemen intelektuari iraina.

Komunitatea garel, oro har, onartua dago, nahiz eta komunitate honen mugez eta jiteaz eztabaida anitz izan. Honen kontzientzia izatea ere onartzen digute, aipatutako konfusioaren barnean, noski. Gure lurretan nagusi ez izatea, bai eta ez, oraingo demokraziak garai modernoetan inoiz ukan ez dugun autonomia eman baitie Hegoaldeko Probintziei... Eta hemen dator gakoa: gure egoera deskribatzeko abertzaleek "zapalkuntza nazionala" diogu, eta Frantzian eta Espainian opresioaz mintzateko aski zapalkuntza ez dela diote ikerle batzuek eta gure nazionalismoaren etsai anitzek. Zapalkuntzaren kontra altxatzen den minoritateak badauka nonbaiteko

zilegitasun politiko eta morala; zapalkuntzarik sofritu gabe aldarrikatzen den nazionalismoak, berriz, logika arrazista eta intsolidarioa dauka, eta nazionalismo hori bere zentzu peioratiboan ulertu behar da.

Betiko zuloan gaude eta, beti bezala, bi logika, segun eta nondik begiratzen den. Aurrera jotzeko kontzajartze hauetatik haraindian jo beharko dugu, guzien jarreretan diren analisiak aztertzen eta haztatzen.

Bada, halere, arrunt zanpatuak diren minoritateengandik bereizten gaituen zerbait: maiorian integratzeko indibiduoak duen erraztasun handia. Beltzak ezin inoiz zuri izan, baina erdaraz mintzo den euskalduna problemarik gabe integra daiteke sistema maioritarioan. Berezitasun honek, dudarik gabe, alienazioaren sakontasuna erakusten digu. Beste modu batez esana, soziolinguistikaren arabera, arrunt elebidun direnen hizkuntza minoritarioak etorkizun iluna duela badakigu. Hemen ere, bi aldetik ikus daiteke fenomenoaren esanahia, baina bere presentzia nabaria da.

Bi jarrera aipatu dugu: baina Euskal Herriaren egoera, gure borrokaren historia, ez da hain estua, hain manikeoa. Jende anitzek pentsatu du "esentzialismo" eta "likidazionismo"aren artean erdibidea dagoela, denbora berean naziotasunaren oinarriak begiratuko eta proiektu amankomun orokor batean herritar guztiak integratuko dituen. Entsegu horien analisisa egin beharko dugu.

Beraz, *zubiak eta loturak ere entseatu dira*: Nazionalismoaren memoria historikoaren aldetik, *ETArena* da esanguratsuen. *ETAk*, garai batez, erreflexio teoriko garran-

tzitsuak errun zituen. Labur dezadan lan honetan ikutzen dugun puntuari dagokion *ETAren* ikuspegia: Euskalduntasunak badauka oinarri etnikoa, historian era aldakorrez gihartua -*Euskaldunen* askatasuna iraultza sozialistak ekarriko du: praktika iraultzaileak Euskadin bizi diren zapaldu (=langile...) guztien askatasuna ekarriko du. Beraz, borrokaren naturak *IREKITZEN ETA HEDATZEN* ditu jatorri etnikoaren mugak -Iraultzak garai dezan interesaturik, praktikak integratuko ditu etorkinak: euskararen ikastea eta erabiltzea izango da integrazioaren marka, iragana eta etorkizuna lotuko dituen zirkulu perfektua.

Ez da horrela gertatu. Aberztaletasun integratzailearen proiektuak ez ditu herritar guztiak bildu. Hasteko, jende anitzek ez du euskara ikasi, ez ikasiko, eta ikasteko borondaterik ere ez dauka. Horien artean bi multzo bereizi behar ditugu: Euskadin bizi den jende-multzo zabal batek baskotzat hartzen du bere burua eta ez du euskararen "inposaketa" onartzen; minoria bat, berriz, (zabaltzen ari dena?) espainol soila sentitzen da: bi kasuak ez dira berdinak. Halere, Euskadiko egoera politikoa eta soziolinguistikoa ikusirik, ez da harrizkeko populazioaren parte zabal batek ez badu euskaraz ikasteko beharra ikusi. Momento bat izan zen, trantsizio-hasieran, non ihardukerak aldekoak ziren: politikan, izate nazional euskalduna denek onartzen zuten, eta jende xeheak hemen euskaraz ikasi beharko zela (nahiaz ala bortxaz) aski bereganatua zeukan. Horretaz baliaturik, hamar urte luze izan du gobernu jeltzaleak administrazioa, bizitza publikoa eta irakaskuntza euskalduntzeko. Ez du egin. Espainoltasuna, espainoltasun politiko,

sentimenduzko edo militarra, ez mintzeko beste politika bat aukeratu du, euskara ondare individual soilera mugatzen duena. Erantzunkizun historikoa harentzat...

Baina ondorioak denentzat dira eta atzera itzultzerik ez da. ETAREN amets integratzailea ez da gertatu eta epe labur edo ertainaz ere ez da gertatuko: jendearen nahikundea bereganatzeko iraultza sozialistaren erakargarritasunaren gainean finkatzen zuen palanka eta, tamalez, iraultza honen etorkizuna beltza da, eta bere esanahia ez da sinesgarria.

Abertzaleen aldetik proiektu integratzaile garbienak porrot egin badu, zer esan dezakegu espainolisten aldetik egin den *Hego Euskal Herriko jende guztia komunitate bakar batean trinkotzeko proposamenaz?* Esana dut jarrera nazionalista esplizitu bi dela gurean: euskaldunena eta espainol-frantsesa. Hego Euskadin nazionalismo espainol basa azpiratua dagoen, oro har. Ez da hori Iparraldeko kasua non nazionalismo frantsesa bizi-bizirik baitago, euskalduntasunari buruz mespretxuz betea.

Baina orain azpimarratu nahi dudana zera da: Hegoaldean den jarrera unibertsal-integratzailea ezin daitekeela nazionalismo espainoletik bereizi. Ez da nazionalismo basa, argian oihukatzen duena, baina haren eragin soziala zentzu nazionalistan ere obratzen da: komunitate nazional bat nagusia den lekuetan, haren nazionalismo inplizitua naturaltasunarekin nahasten bada ere, ia nazionalismo esplizituaren ondorio berberak ditu komunitatetik at gertatzen direnentzat.

Komunitate bakar batean integratzeko dei demokratikoa, beraz,

euskalduntasun berezituaren ukamen sozial gisa aurkeztu da, soilki onartu digutena euskaldun egoteko gure eskubide indibiduala baita. Inoiz eskubide horiek komunitario bilakatzeko entseguak egiten direnean, besteen askatasun demokratikoen aurka joaten direlako estakuru, antidemokratiko edo antikonstituzional gisa aurkezten dira, integrazioaren kontrakoak hitz batez.

Beraz, ezin uka daiteke azken bi mende hauetan abertzaleen eta espainolisten arteko liskarra, bi komunitateen arteko kontraesana beraz, iraunkorra izan dela... Bortitza edo odoltsua? Ez beti. Eta, beti bai, bertako klase eta eskualdeek mediatizatua. XIX. mendeko gerla zibiletan, arazoa ez zen jatorri etnikoa, baizik eta liberal edo karlista izan... XX. mendean, frankista anitz euskal jatorrikoa zen, eta etorkinak eta abertzaleak elkarrekin ibili ziren Errepublikaren alde... Kontraesan etnikoa egiazkoa izanki, Espainiako Estatuaren egitura zela eta, *kontraesan bortitz nagusia termino politikoetan (eta ez etnikoetan) aurkeztu da bereziki...*

Hemen, etnien arteko gerla zibilaren posibilitatea espainolismoak euskal nazionalismoa arbuizatzeko erabilitako argudio iraunkorra izan da, besterik gabe. Sabino Aranaren astakeriak ahaztu gabe eta iraunkorrak izan diren maketoen aurkako iharduerak ukatu gabe, esan dezadan, egiarekin gainera, abertzaleen aldetik integratzaierako deiak izan direla nagusiak.

Halere, ukaezina da *etsaigo nazionala* egon dela. Eta etsaigo horren ukatzeko izan den (eta den) joera ideologikoa ikertu behar dugu.

Nire ustez, joera hau jantzi da balore unibertselez eta ez da esplizituki nazionalista izan; baina, azken finean, arrunt espainolista (edo frantsesa) gertatu da, etsaigo nazionala ukatzea diferentzia nazionala ukatzeko edo menderatzeko tresna gisa erabili duelako.

Esan dudanez, kontraesan bortitzenak termino politikoetan aurkeztu dira: klase-interesek, eta bereziki klase nagusien interesek, determinatu dituzte etsaigo zibilaren momentu gogorrenak. Horiek horrela, ETArek historian ezagutu dugun espainolismoak askotan esan du Euskadiko herriaren etsai nagusia hemengo nagusiak direla: ez da berez aurkikunde handia, besteek ere zer nolako klase nagusiak izan ditugun dakigulako... Arazoa beste bat da: "aurkikunde" honen gainean finkatu dira desberdintasun nazionala epifenomeno gisa kontsideratzeko, garai batez sozialismoak eta orain demokraziak gainditu beharko zuena, behin klase burges edo erreakzionarioen boterea abolitua. Desadan ura nola berotzen den deskubritu duten intelektualek beti harritu nautela: euskal kultura herrikoia hemengo klase nagusiek eta lekuan lekuko Elizak zanpatu dutela "deskubriturik", euskaldunen eta espainolen artean etsaigorik ez dela izan "frogatu" digute berrikitan... Nazionalistak tontoak gara naturaz, omen, eta gure jauntxoek jarreraz ez genekien ezer... Behar bada gutaz gauza handirik ez dakite aurriritziz bete dabiltzan anti-nazionalista horiek. Datu batzuk: hemeretzigarren mendean *Campion*-ek idazten zuen Nafarroak izandako etsai nagusiak nafarrak zirela; Chavarri hil zenean *Sabino Aranak* berak esan zuen Bizkaiko etsai handiena hil zela. Dudatan dagoenak

aski du *Joxe Azurmendiren Euskaldunak eta Espainolak* irakurtzea, harek nik baino askoz hobeki salatzen baititu sasiakurkikunde horiek eta intelektual espainolistek abertzaleen lepoan ezartzen duten ez jakite hori.

Gure klase nagusiak hemengo herriaren zanpatzaileak eta, usu, zanpatzaile nagusiak izan direla badakigu. Halere, ez ditugu bi egitate historikoak ahazten: Lehena, XIX. mendean armaz eta odolez garaitu zuen gobernu espainolak abolitu zituela Foruak; bigarrena, euskal nortasunaren ukamen gogorrena eta sakonena 1936an altxatu zen faxismo espainolak egin duela. Memoria historikoak osoa izan behar du. Horregatik, garbi diogu espainolistek ematen zuten bigarren urratsak ez duela bururik ez eta buztanik ere: etsaigo nazionala, espainolen eta euskaldunen artekoa, ezin uka daiteke.

Herri xehearen heinean ez duela itxura odoltsu edo arrazistarik hartu, egia da. Hona hemen integrazioa edo, bederen, elkargoa lortzeko oinarri positibo eta pozgarria. Baina gure klase nagusiek ez dute horrelako eskrupulurik izan aukera nazionala egiteko: gehienak, espainolistak izan dira (hala nola frantsesak Iparraldean), eta bere nazionalismo sutsuaren frogak garbiak eman dituzte. Hegoaldeari buruz, *Jabier de Ybarraren* liburuak egiten du, hain zuzen, oligarkia bizkainoaren historia: *Liburuaren izena? Política nacional en Vizcaya* (1948)... ezin argiago... Euskal nazionalismo burgesak erabili du etsaigo nazionala sindikalismo langilearen aurka; bere aldetik, espainolismo estatalak eta bertako espainolismoak ere kontrajartze kultural-nazionalak ederki erabil

dituzte... Eta memoria kolektiboan, hala nola jarrera politikoetan, argudioak eta egia erdiak gezur bilakatuta ezagunak dira (Berriz diot: ikus *Joxe Azurmendiren* azken liburua...). Beraz, nire ustez, etsaigo nazionala ezin ukatuzkoa da, hala nola egia den bertako klase nagusien jarrerak arazo nazionala mediatizatu duela. Errepika dezagun gerla etnikorako deiek arrakasta gutxi ukan dutela jendearengan: hainbat hobeki; baina gerla etnikorik ez bada izan, honek ez du esan nahi etsaigo etnikorik ez dela...

Ezkerreko espainolismoarekin kontuak garbitzeko galdu naiz nonbait... Eskura dezagun lehenagoko haria, hau da, ikus dezagun ea abertzaleek nazionalismoa utziz Euskal Herriko sozietatea batu eta baketu daitekeen.

Gaur egunean edo epe ertain batean, Hegoaldeko jende guztia komunitate bakar batean trinkotzeko deiak ez du arazoa konponduko, integrazio honek euskal komunitatearen berezitasunen ukamen sozialaren gainean datzalako, printzipio gisa onartzen baitu komunitate erdaldunari inongo inposaketa politiko edo linguistikorik ezin dakiokela ezar. Euskadiko Ezkerra aipatu dut arestian: hain zuzen, asmatu zuen bidean, aniztasunezko sozietatea trinkotzeko 'oztopoa' euskaldunek dugu errepresentatu, gure bizitza propioa mantendu nahi dugun neurrian bederen. Guk erdeldunak konprenitzen ditugu, haiek ez gaituzte ulertzen... Espainolista modernoek nahi duten era tolerante eta modernoaz oztopoa gainditzeko, guk geuk eman beharko genuke amorea; horretarako prest ez garelako, euskaldunen nazionalismo

erradikala bilakatu dute 'intolerantzia eta erreakzioaren' ardatz... Eta Euskadiko Ezkerraren eginkizun historiko nagusia ez da izan sozietatea trinkotzea, baizik eta nazionalismo euskaldun erradikala borrokatzea... Bokazioa, azken finean, Estatua defendatzea izan da, eta ez gizarte zibilaren oreka eta indarra azkartzea. Errealitatea astuna eta gogorra da.

Alde bien jarrerak ikusirik, egoera gordina dela begi bistan da...

- *Komunitate euskalduna* kinka larrian dago. Bere berezitasuna hizkuntzak sortzen du, eta gaurregun euskarak ez ditu irauteko behar dituen lanabesak, berdin barnekoak (motibazioa, konpaktazioa) edo instituzionalak (babe-sa, lurraldetasuna, ...) Kontestu orokorrean, eta postmodernoen bezala hitz egiteko, erdara hizkuntza "arina" da eta euskara, berriz, "geldoa"; lasterketa honetan euskarak galtzaile izaitzeko txartel guztiak ditu. Honen kontzientzia, garbia eta hedatua da euskaldunen artean.

- *Komunitate nazionalista* komunitate euskalduna baino zabalagoa da. Bere kontzientzia nazionala, noski, egoera historikoaren arabera aldatzen ari da. Eta gaurregun erreferentzia humanista unibertsalak galtzeko arriskua dauka. Ezker abertzalearen osakina zen internazionalismo iraultzaileak ez du pisu handirik; eta beste nazionalisten artean Europako erreflexu xenofoboen agertzea ez litzateke harrigarria izanen, kontutan harturik zer den egoera ekonomiko eta politiko orokorra. Beraz, komunitate nazionalista deabru intsolidarioek

tentatua izanen da. Baina, hain zuzen, estatu espainolean ezker abertzalearen barnean dira bizienak jarrera internazionalistak... Ematen du, nonbait, hainbeste urtez estatuaren kontra borrokan ibiliz gero, erreflexu batzuk oso barnatuak ditugula; haietariko bat, pobre eta zantapatuekiko solidaritatea eta estatuaren aurkako etengabeko etsaigoa. Agian txertoak luzerako babestuko gaitu. Baina aipatutako deabru xenofoboan arriskua badela jakin behar dugu.

- *Komunitate ez-nazionalista* (eta, hein batetan, antinazionalista) harrotua dabil...: demokraziaren izenean ematen die aurpegia euskal nazionalismoaren "inposaketei", eta, beraz, oso kontzientzia onaz dihardu. Baina azpiko berezitasun nazional espainolak babestu nahi dituzten jarreraren gainean dabilta, nahiz eta nazionalismo esplizitua ez izan hemengo espainol gehienen bizi politikoaren ardatza... Komunitate hau "harrotua" dela diodanean, bi zentzutan diot: legamiak irina harrotzen duen zentzuan lehena (hauteskundeetan espainolak gora ari dira) eta, bigarrena, norbait harro eta zital jartzen den zentzuan (egunerokotasunean ikusten diren euskaldunei buruzko mespretxu-zeinuak, batez ere irakaskuntzan... "casheroak" dira etxean euskaraz ari direnak, "maria" da euskara, e.a.).

Komunitate desberdinak eta bakoitza arrunt sinestua arrazoia duela. Askotan, kontzientzia garbidunen arteko borroka izaten da konpongaitzena.

**Sar gaitzen hormadi lerrakorrean...  
Esentzia etniko-arrazialek  
faxismoaren atea zabaltzen dute...  
Bai eta berezitasun etniko-  
-arrazialak ukatzeak ere.**

Hemen geldiune bat egin behar. Komunitate desberdinez mintzatzen hasten garenean susmagarri bilakatzen gara: naziotasuna nonbaiteko esentzia etniko-arrazialekin ez dugun lotzen galdetuko digute eta...

Auzi honetan argia izan behar da. Nazionalismoaren existentzia berezitasunaren gainean finkatzen da: berezitasunik gabe ez litzateke nazionalismorik. Beraz ez da harritzeko berezitasun honen existentzia nazionalistek eta antinazionalistek edo ez-nazionalistek ere aipatzen badute. Dena da zer edukin ematen zaion berezitasunari, baina berezitasunaren ukatzea nazionalismoaren ukatze bera da, eta hemen ezagutzen dugun praktika historiko-sozialaren ukatzea. Ezin izan daiteke... Nazionalismorik ez dela behar esatea guztiz jarrera hutsala da. Izena alda dakioko fenomenoari, eta hori egin daiteke nazioa kategoria historiko gisa kontsideratzen bada; baina nazioaren azpian dagoen berezitasunak historian gaindi dirau, eta nola... Nazionalismoaren alde intsolidarioak eta berekoiak gaitzeko jarrera egoki bakarra da nazionalismoa humanismoarekin lotzeko doan bide posibletik abiatzea, beraz, naziotasuna ukatu gabe, esistentzia naturalaren fenomenoak ukaezinak direlako. Uztartzean eta ez ukatzean datza gainditze posible bakarra. Hamaika aldiz errepikatu dut ideia bera eta gero ere itzuliko naiz puntu horretara.

Halere, berezitasunaren existentziak jatorri eta kontzientzia nazional desberdina dituen jende-multzoak ukitzen ditu. Espainia (edo Frantzia)tik etorri den askok ez du bere burua “integratu” edo “asimilatu” berezia den euskalduntasunean: espainolak, edo Euskadin bizi diren espainolak, edo vasco y espainol a un tiempo, edo nazionalista ez den vascoa sentitzen dira... Euskadin bertan sortu eta bizi diren jende-multzo batzuek ere kontzientzia nazional espainola daukate: isolatuak, edo ideologikoki berezituak -liberalak, sozialistak- edo geografikoki markatuak -Tafallatik hegoalderako Nafarroa...

Euskal identitatea eta euskal nazionalismoa nahasten dira, gauza bera izan gabe, baina oso lotuta. Euskal identitate kulturala eta kontzientzia nazional ez-euskalduna elkarrekin agertzen dira indibiduo eta jende-multzo batzuegan (Iparraldeko laborari eskuindarrak / Nafarroako ipar-ekialdea/ Bilboko tradizio hiritar-liberala... / Euzkadiko Ezkerraren inguruko intelektual eta politiko batzuk), baina ematen du difuminatzea eta galtzea dela kontzientzia nazional gabeko euskal identitatearen etorkizuna: hizkuntza ordezkatzearen fenomenoak nabari-nabariak dira eskualde ez-abertzaleetan eta bakanak dira euskal nortasunaren defentsan ibili diren intelektual eta politiko espainolistak.

Beraz, abertzaleek ez dugu esku-biderik euskalduntasuna eta abertzaleetasuna gauza bera bezala kontsideratzeko: abertzale ez den euskaldun asko dago, abertzale eta euskaldun ez den vasco asko dago, eta abertzaleen artean denak ez gara berdinak. Baina badugu, halere,

eskubidea aldarrikatzeko gure berezitasunaren oinarri linguistikoa begiratzeko abertzaleak garela etorkizuna garantiza dezakegun bakarrak. Eta honek ez badigu euskal nortasunaren jabego absolutua ematen, bai digu ematen leku berezi eta nagusia euskal nortasunaren aldeko borrokan.

Eta gure nazionalismoak, nazionalismoa aitortua izanki, intsolidaritatearen arriskuak bere baitan eramaten baditu, tenorea dugu ikertzeko ea nazionalismo esplizito edo aitortua ez den demokrazia integratzailearen mezuak ez dituen kimu berak eramaten. Dagoeneko baietz esan dut. Itzul gaitezen harira.

Ez naiz ariko espainol edo frantses nazionalismo aitortuari buruz, hauetaz ezer berri ez baitugu demostratzeko. Demokrazia “integratzaileaz” oso argigarriak dira berrikitari argitaratu diren oinarriko ikerketa batzuk. Hona bat: *Reinhart Koselleck –Le futur passé. Contribution à la sémantique des temps historiques*. 1990– “Herri, nazio, masa” –in *Dictionnaire des concepts historiques*. 1993). Honela dio:

“Mendebaldeko Europako estatuei oso gogor gertatzen zaie minorien eskubide kolektiboak onartzea, estatu hauek eskubide indibidualen ezagutzaren gainean finkatuak direlako. Baina norbanakoaren eskubideak garantizatzea ez da oztopo minoriak zanpatzeko. Irtenbidea, irtenbiderik bada, minorien eskubide kolektiboak onartzea da, baina honek maiorien protestak eragingo ditu, onartze hori pribilegiotzat joko dutelako. Baina, luzera begira, minorien existentziak planteliatzen dituen arazoak gozatzeko modu bakarra, minorien ezagutza da.”

Eta hemen dator gako oso garrantzitsu bat. Zanpatua edo ahuldua den komunitate bereziak oportunitate bereziak behar ditu irauteko eta, bereziki, indartzeko. Euskaldun komunitatearen egoera argia dugu: errepresio zuzenaren ondorioz eta "lege" soziolinguistikoen indarrez, ezer berezirik egiten ez bada epe aski labur batez desagertuko dela bistan da. Errepresioaren ondorioek legitimatu dute "erreparazio historikoaren" kontzeptua; baina, are gehiago, minoriek bizitzeko behar dituzten neurri berezien beharrak zilegi egiten ditu maioriak ez dituen erraztasun batzuk. Aipa ditzagun: administrazio elebiduna minoriak populazioaren parte txikia ere egiten badu edo haurren kopuru bereziak eskoletan. Gainera ditzagun bake sozialak esijitzen dituen neurriak: lurralde elebidunen haur guziei minoriaren hizkuntza benetan erakastea, bi aldetarako komunikazioa posible egiteko; alor elebakarren errespetatzea eta zabaltzea, hizkuntzak denetarako balioa ukan dezan...

Ez naiz orain sartuko programa oso baten zehazten. Erran dezadan neurri berezi hauek demokraziaren kontzeptu arruntaren aurka jotzen dutela.

*Berdintasuna.* Argudio hau oso erabilia da Frantzia, non estatuak minoriak babesteko nazioartean onartzen diren itun guztiak arbuatzen baititu berdintasun honen izenean. Hiritar guztiak berdinak omen dira, eta ezin onar daiteke frantsesak beren artean bereiziko dituen legerik. Are gehiago, minoriarentzat lege bereziak onartzea izanzen zen desberdintasuna legeztatzea, eta hori Konstituzioaren aurka omen doa eta 1789ko filosofia politikoaren ukazioa dakar. Jarrera hau

zenbateraino den zinikoa ez da esplikatu behar. Merezki luke bai ikertzea *demokraziaren funtsa eta Iraultzaren filosofia politikoaren azpiegitura*. Horretaz zerbait idatzi nuen 1989an ("Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak", *Jakin*) eta bi ideia nagusiak gogoratuko ditut: Demokraziaren funtsaz, kritika libertarioari guztiz zuzena deritzot: maioriaren borondatea (hauteskudeen bidez erakutsita, eta hau da "demokratiko" den ia osakin bakarra) estatuan gihartzen da, eta estatu honek bereganatzen du indarra eta legitimitatearen monopolioa; beraz, estatuaren egiturak berak talde sozial batzuen existentzia onartzen ez dituenean (minoria nazionalak edo talde sozialak), estatuak legitimazio demokratiko osoa dauka talde horien margintzeko edo eliminatzeko. Lehen aipatu ditudan eskusio basak (errefuxiatuena, emigranteena, ...) guztiz txokanteak dira pentsakera humanistarentzat eta guztiz normal mentalitate demokratiko-estalistarentzat. Bigarren ideia nagusia nazionalismoari dagokio: deabrua atetik kanporatu eta leihotik sartu... Frantziak dio naziotasuna borondate politiko askatasunzale eta unibertsalaren gainean finkatu duela; praktikan, kritika historikoak ederki erakusten digu nola askatasunaren nahia nahasten den nazionalismo frantses arruntarekin, nazio natural eta handiaren mitoarekin. Ikuspegi politikoak estaltzen du osakin "naturala", baina osakin hau etengabe agertzen da historian zehar, bai eta minorien babesa ukatzeko orain erabiltzen diren argudioetan ere. Gainera dezadan Frantziaren jarrera honen edukina

konparatu behar dela ez soilki minoria nazionalei European ematen zaien tratamenduarekin, baizik eta beste Estatuetan minoria guzietan ematen zaienekin: berrikitan *Pascal Noble* tek konparatu ditu Estatu Batuak eta Frantzia (*L'Amérique des minorités*, 1993), eta dakiguna errepikatzen du: "Hasteko, minoritateak ez ezagutzea, sofritzen duten diskriminazioaren kontra ez borrokatzeko oinarria da". Jakina.

*Legitimitatea.* Hona bigarren arazoa. Demokrazietan, orain bederen, estatu eta indibiduoaren artean ezer gutxi gelditzen da. Beraz, estatuaren osakin nazional-nazionalistarekin identifikatzen ez den talde sozial batentzat leku gutxi gelditzen da. Legitimazio-mekanismo nagusia hauteskundeak izanki, populazio majoritarioaren barnean barreiatua den minoria batentzat beti galtzaile izatea izanen da joko-araudien ondorio beharrezkoa. Horiek hola, maioriak begi txarrez ikusten baditu "pribilegioak" eta hautetsi gehienak maioriaren ordezkari badira, diru publiko eta babes publiko gutxi izanen ditu minoriak. Errana den bezala, akerraren buztanpean aterpe gutxi... Egiazko demokraziak zuzena izan behar du, eta ordezkariak bigarren mailako mekanismoa izan beharko luke; existentzia naturala (edo existentzia soila) duen edozein kolektibok bere buruari dagozkion xede propioen arabera antolatzeko eskubidea dauka, eta horretarako behar dituen bizi-pide finantzario eta legalak ukan behar ditu. Hona hemen gure oraingo politikariek inoiz onartuko ez duten ideia, hain sinestuta baitira beren legitimitate

osoaz behin hautatuta nahi dutena egiteko. Eta hona hemen maioriek nekez onartuko duten ideia, berriz ere ondo azpiratuak eta izorratuak direnentzako ematen ahal diren bizi-pideak pribilegiotzat salatuak izanen direlako...

Hots, garbi iruditzen zait demokraziaren barnean diren oinarriko legeek minorien kontra jotzen dutela, eta, gure kasuan bezala, hiltorian dagoen minoria linguistikonazionalaren existentziaren aurka. Hots, demokrazia errepresentatiboak nazionalismo aitortuari egotzi dizkiogun problemak ditu: desberdintasuna mehea da... Intsolidaritatea "kanpotarren" kontra ari da beti, baina sistemak onartzen ez dituen barnekoak ere dira atzeritarrak demokrazietan. Horregatik, politika abertzale batek behar dituen jokamoldeak argiak iduritzen zaizkit: komunitatearen autoeraketa, estatuaren aurkako borroka, demokraziaren zentzu liberario eta partehartzailea sakontzea, eta egiazko humanismo unibertsalaz hornitzea.

**Euskadi "bertebratua" egin ezinaz,  
bertebra dezagun geure  
komunitatea eta sort dezagun  
DENENTZAKO DEMOKRAZIA.**

Bukatzeko, berriz ere Euskal Herriari begira ezarriko gara, eta orain arte esandakoa laburtuko. Arazo batzuk (edo erreflexio hein batzuk) azpimarratu behar dira:

\* Euskal jendartea "inbertebratua" dela eraikuntza nazional bat eta bakarra egiteko (*Xabier Aierdi: Herria 2000 Eliza*, 126. zenkabia). Ados.

Kontzientzia nazional diferenteak (hiru!) gehi batetik bestera pasatzeko (integratzeko, asimilatzeke) motibazioen eskasia: gauza nabariak dira. Euskalduntzen diren espainolak gutxi dira, euskalduntzen diren frantsesak ia inor ez, eta des-euskalduntzea arina bada Iparraldean, denbora batez, Hegoaldean bezala, mugak bermatuko dira. Beraz, eremu geografiko txiki eta konplexu batean (bederen hiru eremu legeetan berezia, non lau administrazio desberdinak ibiltzen baitira elkarri puxaka...), hiru komunitate linguistiko diferente, eta hiru kontzientzia nazional desberdin, denak beren nortasuna atxikitzeke prest. Denak kultur nazional bakarrean integratzea ezin orain helburua izan, ez hurbila, ez ertaina ere. Eta kontzientzia berezituak desagertarazteke entseguak ezin uler daitezke ez bada batzuk bestea mendera dezan.

\*\* Minoriaren existentziak arazoak sorten ditu. Bistan dena.

Problema guk pausatzen ditugu, beste gainerakoak bezala, "normalak", izan "nahi" ez dugunak. Izan nahi, halere, ez da bakarrik borondatearen ondorioa; nahiz eta gehienak elebidunak izan, euskalduntzat geure burua jotzen dugunean faktore nahasiak eta sakonak nahastekutzen dira gure baitan, eta "aukera" ez da hain arrazional, hain azalezkoa... Azken finean, "aukera" honetan gure herria eta familiaren memoria historiko osoa kondensatzen da, bere osakin politiko, mitiko, afektibo, eta nahi den guztiarekin. Bada nonbaiteko determinismoa aukera hauetan, eta determinismo honen sustrai historiko eta soziologikoak sakonak dira. Beraz, "normalak" izateko aukerak desustraitze sakona suposatzen du gudan,

eta bakarrik patologia sozial larrian ikus daiteke horrelako suizidio kultural kolektiboa. Baina, egia da, gure existentziak planteiatzen ditu arazoak; eta errazkeriaren (eta injustiziaren) legea ezin onar: minoriaren desagertzea da irtenbide erradikalena... Edo, desagertze absolutua ez bada, gizartetik desagertze faktikoa, bere berezitasunak intimitatearen arloan gordetzen direnean: hau da Frantziak ezagutzen digun "libertatea", gure artean eta emeki euskaraz hitz egitekoa; eta hau da euskararen heriotzarekin akomeatu diren euskaldun anitzek diotena: familiak salbatuko du euskara, etxeko supazter goxoan... Hegoaldekoentzat jarrera hau karikatural, pentsaezinak izan daitezke; Iparraldean, berriz, egunorokotasunaren osakinak. Baina ziur nauzue Hegoaldean ere anitzek ongi ikusiko dutela supaztertxokoratze hori, gatazka "goxoan" ezabatzeko... Suntzitze biolentoa edo plazatik jalgitzea ezin onartuzkoak zaizkigu eta ez ditugu onartuko: minoria izanki, aski azkarrak gara gure bizinahiari irauteko bideak emateko, honek suposatzen dituen etengabeko borrokaren bidez.

\*\*\* Soluzio orokorrik eza.

Esan nahi baita nazionalismo espainol eta frantsesak ez dutela indarra gu akabatzeko (egia esan, nazionalismo frantsesak lortu du dagoeneko Okzitaniaren likidazioa, eta Ipar Euskal Herriaren etorkizuna oso beltza da...; baina gauden baikor!), ez eta euskaldunek ez dugula indarra edo okasioa Euskadi independente, batu eta euskalduna epe labur edo ertainaz erdiesteko. Gure komunitatearen bizia trinkotzeko, organitzatzeko eta iraunarazteko bai, horretarako bai dugu indarra: hau da gure gaurko eginkizun nagusia,

lehen aipatutako koordenadetan sartuta (egiazko demokrazia sakondu, estatuaren aurka etengabeko jarrera, eta humanismo unibertsalaz gure nazionalismoa hornituz). Honek ez dio arazoari irtenbide iraunkorra emanen, komunitate desberdinen existentzia eta haien arteko harremanak beti gatazka-sortzaileak direlako. Eta gatazka hauetan anomia edo elkar aberastea biak agertzen dira. Egiazko demokraziak alde anomikoak ahul ditzake. Horretaz itzuliko naiz gero.

**Nazionalismoak ez du berez edukin etiko definitu edo iraunkorra. Baina *geureari* zer edukin emanen diogun gure gain dago.**

Bil ditzagun lanean barreiatutako ideia batzuk. Gogora dezadan nazionalismoak zeharo markatzen duen komunitate baten partaideak garela, eta ez soilki edozein komunitate nazionalismoaz markatua delako, baizik eta gurean nazionalismo esplizitu eta organizatua fenomeno nagusia delako. Gainera dezagun komunitate nazionalista eta komunitate linguistikoa ez direla gauza bera: lehenak hedadura handiagoa eta bokazio maioritarioa dauzka; bigarrena, berriz, minoria da. Nazionalismoaren proiektu integraztailea krisian dago orain. Haren garrantzia ahaztu gabe, minoria linguistikoaren iraupena eta hedapena erdiesteko borroka da esanahi handiena daukana.

\* Esana dut gure komunitate linguistikoaren bizitasun osoa lortzeko "borrokatu" beharko dugula, gure existentzia eboluzioaren lege arrunten aurka igerian ari delako. Kondenaren kontrako estrategian, komunitateak

berak bere burua azkartu behar du eta sozietateak eman behar dizkio bizitzeko ahal guztiak. Beraz bi ekinbide, bat barrura begira, bestea komunitate erdaldunekin konpartitzen dugun sistema egokitzeko zuzendua. *Barnera, konpaktazioa* aipatu dugu, eta honek suposatzen duen espazioaren jabetza. Horretaz anitz mintzatu beharko dugu: espazio konpaktoa, nire ustez, ezin daiteke uler modu estuaz, hau da eremu geografiko elebakar, batu eta mugatua bezala; komunikazioaren denboretan espazioaren nagusitza ez da soilki territoriala, ez eta nagusiki territoriala ere; komunikabide arin, material eta inmaterialeen denboran gaude, eta konpaktazio handia lor daiteke nahiz eta komunitateak bere eremu territoriala beste komunitateekin partekatu.

*Honek dakarren korolariora, demokrazia eta berdintasunaren arazoa* da. Territorio honetan (niretzat, zazpi probintzia historikoetan) euskaldunek ukan behar ditugu posibilitate osoak baliabide kolektiboak euskaraz erabiltzeko; gure gain direnak, limitaziorik gabe; eta estatu edo erakundeen eskuetan direnak, berdin ere bai! Nahi nuke kolektibitatearen eskuetan baliabide gehienak ukan, eta honek suposatzen du herri kudeantza zuzena dela sozietatea organizatzeko modu onartua; honek behaztopatzen du gure politikariek duten filosofia, non estatuak kudeatzen duena herrikoia eta demokratikoa den, eta estatutik kanpo organizatzen dena zapuzten eta marginatzen duten. Demokraziaren kontzeptua aldatzen ez den bitartean, esijentzia garbia: estatuak eta instituzioek funtzionario euskaldunetz eta baliabide euskaradunetz hornitu behar dituzte publikoaren zerbitzuan diren alor eta bulego guztiak.

\*\* *Naziotasun "etnikoa" eta "herritasun demokratikoaren" arteko dialektikaren* barnean gaude bekoz beko. Bien arteko oreka aurkitu behar da, maioriari konpreniaraziz minoriak behar dituen neurri bereziak ez direla pribilegioak, baizik eta justiziazko neurriak eta gatazkari irtenbide positiboa emateko bide bakarra. Honetan, batzuen eta besteen lana beharrezkoa da. Baina elemento distortsionatzaileen artean, nazionalismoaren azken helburuak nabariak dira. Espainol eta frantses nazionalismo esplizituaz ez naiz mintzatu, beren jarrera harro, inperialista eta zinikoak ezagunak direlako. Gure nazionalismoaz, esan dezadan azken helburuak (Euskadi batu eta euskalduna) populazio ez-euskaldunaren integrazioa suposatzen duela... Gaurregun, ongi dakigu helburu hori populazio osoari hedatzeko oztopo handiak kausitzen baditugu, ez dela soilki kanpotik etorritako alienazioak herriari oinarri etniko-nazionala izkutatzen diolako: ez, oztopoak ez dira koiunturalak, estrukturalak baino, eta gure populazioaren historiaren ondorioaz Euskal Herriko espainolak eta frantsesak, hala nola integratu ez diren etorkinak, gure populazioaren osakin normala dira. Nazionalismoak bere azken helburuak abandonatu behar dituela esan nahi du honek? Ez dut uste. Historiak bueltak ematen ditu, eta proiektu nazional askatzaile eta erakargarri batek beregana litzake biztanle gehienak... ETAk egindako apostuak porrot egin du, baina apostu txarra zenik ez nuke esango. Berriz botako genuke aldakuntza historikoa haren alde balego... Baina, momentuz bederen, arazo nagusia da euskaldunen konpaktazioa eta egiazko demokraziaren arteko dialektika, azken helburu nazionalistak estakuru

minoría euskaldunari bere eskubideak ez dakizkion uka.

\*\*\* Dialektika honetan euskaldunak ez gara faboreak edo pribilegioak eskatzen ari. Euskal Herriko jatorrizko herria garela badakigu, eta ebidentzia hau aski da zilegitasun handia emateko gure borrokari. Euskaradunak minoría linguistikoa eta soziala gara, baina jatorrizkotasun honek ematen digu beste dimentsio bat, nazionalismoaren hedapenak frogatzen duena: Euskal Herrian euskaldunak eta abertzaleak biltzen dituen multzoa gehiengoa da eta bokazio hegemonikoa dauka. Horregatik, errepika dezadan: euskaldunak minoría bat gara, baina ez nolana horkoa... Halere, euskalduntasunaz harro izatea txobinismoaren atea izan daiteke, eta edozein nazionalismo intsolidario eta klaniko bihur daitekeela esana dut. *Nazionalismo "deribatua" aurka jarrera aktiboa* gaurdanik behar dugu, eta bereziki gero beharko dugu, gure kolektibitate inoiz hemengo indartsuena bilakatzen bada. Humanismo orokorraren beharra daukagu, maioritarioen jarreraren aurrean garbi agertzeko eta, bereziki, borroka legitimoan ari garela gure baitan sentitzeko.

Zein humanismo unibertsala? Garai batez, Espainiako langileekin geneukan elkarlaguntzaz eta iraultza sozialistaren alde ari ziren populu eta taldeekin geneukan harremanez frogatzen genuen gure internazionalismoa... Proletarioa eta komunista zen... Gaurregun, apalkiago nenbilke, gure bi estatuek marginatzen dituzten kolektiboekin ibiliz: emigranteak, arrazismoak mespretxatzen dituzten "besteak", gure enpresek eta instituzioek zanpatzen dituzten garatugabeko populuak, eta,

oro har, mugimendu sozialetan dabilzan progresistak oro. Hemen finka, heda eta azkar daiteke humanismo unibertsala, hain baita egia soilki hurbil dugun konkretuan gara daiteekela nahikunde zabal eta handia. Eta, egia esan, gure nazionalismo erradikalak zangoak ongi ditu pausatuak hortik jarraitzeko.

Baina nekez aurkez daitezke arazoa eta estrategia, nazionalismoaren baitan diren edukin emozionalak kontutan hartu gabe. Denek dakigu zein garrantzitsuak diren. Eta, berriz ere, gure barneari so emanen naiz, nazionalismo espainol eta frantsesaren alde irrazional-afektiboak ere ikertu behar direla azpimarraturik. Azken finean, nazionalismo etsaitu guzti hauek elkarrekin bizi dira esparru geografiko, tenporal eta politiko berean.

### **Komunitate euskalduna egoera agonikoan**

Ez da broma. Euskal kulturaz (euskarari buruz) arduratzen direnen artean askok kontzientzia militantea dauka. Injustiziaren aurka borrokatzen duen herri zapalduaren partaide izaitzearen kontzientzia daukate. Honek sortzen ditu botereari buruzko erreflexuak: mesfidantza, izpiritu subertsiboa, herriaren antolakuntza instituzioetatik kanpoan egiteko ohitura...

Kontzientzia hau gabekoak ere badira: euskaraz dakite, euskaldunak dira, baina euskara egoera orokorraren akzidentea da, ez batere egoeraren ardatza. Perspektiba-kontua baina guztiz garrantzizkoa, ... Haienezat instituzioak jendarte anitzaren ispilua dira, eta euskara gai bat, atal bat, aspektu bat da... instituzioen praktika, izpiritua, edukinak ez dio euskarari horrelako

zentraltasuna ematen... Kontzientzia agonikorik gabeko euskaldunek ez dute, beraz, izpiritu subertsiboaren beharra.

Baina kontzientzia militanteak areagotzen baditu bizitasuna eta subertsioaren aldeko tirria, berdin areagotzen du gurekin bizi diren beste komunitateekiko komunikaziorik eza, nazionalismoa entropian sartzeko arriskuarekin. Gureari uko egin gabe besteekiko komunikazioa areagotzea beharrezkoa da: errepika dezadan horretarako esparru partekatu bat kausitu behar dela, non komunitate desberdinen arteko leia sozietatea aldatzeko ekintza positibo batez eraldatzen den. Azken finean, internazionalismo iraultzaile zena egiazko demokraziaren aldeko borroka zibiko bilakatu da oraingo koiunturan.

Alta, etorri handiko ideiak maite dituztenei, *Edgar Morin*-ek proposatzen duen lekuan lekuko sustraitze eta Lur Aberriaren arteko oreka gogoratuko diet: "Sustraitzea guztiz zilegia da, batez ere abstrakzioa eta berdinkeria mehatxu handiak diren garai hauetan; baina hertsikeria eta errepliegearen aurkako antidoto bakarra da sustraitze orokorragoa egitea, esan nahi baita aberri txikia baino zaharrago, hedatuago eta sakonagoa den Lur Aberrian sustraitzea. Hona ene ideia. Baditugu arbaso kultural hurbilak, baina horien aitzinetik humanitatearen lehen arbasoak, Afrikan sortuak eta kontinente guzietan barreiatuak. Denek dugu lurtar eta humanitatearen identitate bera. (...) Ene ideia, beraz, ez da sustraitzea eta kosmopolitismo errorik gabekoa kontrajartzea, baina Lur-Aberrian sustraitze handia bultzatzea. Eta sustraitze honek

onartzen du mestizageen eman-kortasuna, hain zuzen, kultura guziak, nonahitik jinak, nahasmenduan sortu baitira...” Egia esan, niretzat hain etorri handiko ideia horiek urrunak dira, baina, funtsean, arrazoina du: humanitatearen destino solidarioan parte hartu behar dugu, berdintasunean, gure sustrai hurbilen gainean finkatuta, orokorraren eta hurbilaren arteko orekan.

### **Demokraziaren barnean esku-bidez berdina (omen) dira hizkuntza desberdineko herritarrak**

Baina demokrazia maioriaren erresuma (omen) da eta, batez ere, botere-delegazioaren erresuma. Lehen esana dut, eta berriz helduko natzaio.

Minorien lekua beti marginala da, nahi edo ez... Batez ere minoria horien ezaugarri bereizgarriak hedagarriak ez direnean (euskalduntasuna hedagarria da *printzipioz*, hizkuntza ikas daitekeelako, mintza daitekeelako –baina mugatua da *izaitzez*, erdaraz bizi direnek euskalduntzeko motibazio sozial edo politikorik ez daukatelako).

Aldatuko ez duguno, oraingo sistemak gehien eskain dezakeena hauxe da: erraztasunak komunitate euskalduna bere baitan bizi dadin, baina batere ez erdararen erresuma uzkailtzeko plangintza orokor eta luzea.

Beraz, aurrera jotzeko, *bi esparru, bi ekinbide...*

\* *Komunitate euskalduna azkartzeko, batzekoa.* Instituzioak erabiliz, baina komunitateak berak eramana. Nazionalisten komunitatea euskalduntzeko alderdi politiko abertzaleen huts egitea ikusirik, ez da harritzeko ekimen “apolitikoak” agertzen badira

(*Sanchez Carrión*)... Baina politikak bere buztana erakutsiko du...

\*\* *Demokraziaren barnean elkarbizitza segurtatzeko minoritari zor zaizkion eskubide guztiak ezagutaraziz.* Kaxu!: ez da hori kasua oraindik (Ipar EH, Nafarroa... ez eta Euskal Autonomi Elkartearen ere..). Eta hemen ezartzen da egoera konfliktualaren ulertesparua.

Baina ez da aski:

Demokraziak ezarritako mugak gainditzeko borondatea daukagu. Klabe batzuk *Reinhart Kosellecken* aipatutako lanak ematen dizkigu. Bi kontzeptu azpimarratuko ditut: “Gisa guztiz, nazioak (estatu-nazioa) bere burua oinarri kultural baten gainean ezartzen duenean, minorien egoera askoz gogorragoa da oinarri hori eskubide hutsaren gainean ezartzen denean baino”. Eta, hain zuzen, Espainia eta Frantzia naziotasuna eskubideak oinarritzen badu, bi estatuetan egiten diren aipamen linguistikokulturalak ezabatzeko borroka premiazkoa da, demokrazia geldi ez dadin eskubidearen mugetatik kanpo eta identifikazio natural-irrazionalen alorrean. Aipatzen ari naiz, hain zuzen, espainol guziek duten gaztelania ezagutzeko beharra (deber!) eta frantsesa Errepublikaren hizkuntza...

Bigarrena: Austria-Hungaria oso ongi ikertu behar dugun kasua da: ez zen federazioa, baina ez zen ere herri-presondegia; esku-bidea oso tolerantea zen. Behin baino gehiagotan itzuli naiz ur hauetara: *Gurutx Jauregik*

1986an *Contra el estado-nación* argitaratu zuenean, aipamen bat egin nion *Larrun* aldizkarian: “Jauregi oso kritikoa da austro-marxistez. Nago, hala eta guztiz ere, eta inongo kalko ideologikorik egin gabe, hobeki ezagutu behar ditugula aportazio horiek. Eta gainera, hain zuzen, euskararen egoera eta etorkizuna oso loturik daude lurralde eta pertsonen arteko dialektikari, eskubide territorialak, eskubide kolektiboak eta eskubide pertsonalen arteko dialektikari”.

Baina nazionalismo zapaltzailearen ildoetan erori gabe...: nazionalismoaren *edukin etikoa guztiz aldatzen dela* esan dut. Eta hau ez zaio soilki aplikatzen bi komunitate aurkatzeko ezartzen dituen gatazkari. Hau ere aplikatzen zaio komunitate nazional baten barnean diren nazionalista desberdinei, hain baita egia beren klase-egoerak, beren integrazioa edo marginazioak, beste faktore askoren artean, nazionalismo politiko eta jarrera sozialen praktika eta esanahia aldatzen dituztela (Eta hau unibertsa da; *F. Hertz*-ek seinatu zuen 1944an eta gure antzeko kasuetan ere ondo aztertua izan da: Québec kasua, *Bourque* eta *Laurin-Frenette*, 1972). Baina konstatazio honen gainean beste ikuspegi faltsua sortu da: nazionalismoaren huts guziak nazionalismo burgesaren gainean bota dira, eta gurea, berriz, iraultzailea,

orbain gabekoa da esentziaz. Hau da hasiera-hasieran aipatzen nuen kontzeptu edo mitoa: egiazko abertzaleak nazionalismo eskuindarraren ondorioen kontra txertatuak omen gara! “Nazionalista” eta “abertzale” artean bereizketak ez du, halere, arazoa konpontzen. Niretzat argia da gure nazionalismoan ere “deribatze” arriskua dagoela, eta dagoeneko 1980an idatzi nuen (*Zehatz*, “Nazioa eta estatua”): “bereizi genitzake “abertzaleak” eta “abertzaleroak”, garden-gardenak lehenak eta sasikoak eta txobinistak bigarrenak, eta “abertzaletasun proletarioa” bertutez horniturik “nazionalismo burges” zikinetik genekaze alden du ere. (Baina) hauek guzti hauek, halere, eraikuntza ideologikoak, faltsuak (dira)”. Eta bukatzen nuen esanez gure nazionalismoari irtenbide egokia emateko ez genuela estatu propioaren alde egin behar, baizik eta estatu guztien suntsitzeko borrokan jarraitu.

Gatazkak iraunen du. Eta gatazka anomia eta entropiatik ateratzeko hona nire ustez uztartu behar ditugun hiru osakinak: Sustrai etniko-kultural-lurtarrari diogun atxikimendua, gure sentimendu eta praktika askoren sorburua delako, gure belaunaldiko askok inoiz ukatuko ez dugun oinarria... Ikuspegi orokor humanista (iraultzailea?) baten behar absolutua... Eta demokraziaren esparru dukorran daramagun eguneroko borroka, praktika liberal-libertarioaz egundarik ondu behar dugun alorra... Gehiegi?